

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Funtzio Publikoaren zinegotziaren ebazpena, lanpostu hutsak hornitzeko lekualdatze-lehiaketaren deialdia eta oinarriak zein horien eranskinak onartzekoa

Vitoria-Gasteizko Udaleko lanpostuen zerrendan karrerako funtzionarioentzat gordetako hainbat lanpostu daude, gaur egun titularrik gabe eta behin betiko atxikipenik gabeko titularrik gabe dauden lanpostu hutsak, zein gaur egun aldi baterako edozein hornikuntza-modalitate bitartez estalita egon baitaitezke. Lanpostu horiek ebazpen honen eranskinean daude zerrendatuta; horiek betetzeko deialdia egin behar da lehiaketa-prozeduraren bidez, bai eta prozesua arautuko duten oinarriak onetsi ere.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 94.1 eta 94.2 artikuluek xedatzen dutenaren arabera, administrazio publikoek berdintasun-, merezimendu-, gaitasun-, publikotasun- eta gardentasun-printzipioetan oinarritutako prozeduren bidez hornituko dituzte lanpostuak, eta funtzionarioentzat gordetako lanpostuak lehiaketa-sistemen eta izendapen askeko sistemen bidez hornituko dira, lanpostu-zerrendetan ezarritakoaren arabera. Lege bereko 97. artikulua eta hurrengoek hutsik dauden lanpostuak lehiaketa bidez hornitzeko deialdia arautzen dute. Horrez gain, urriaren 13koa 190/2004 Dekretuak —euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko denak—, II. kapituluan, lanpostuak lehiaketaren bidez hornitzeko prozedura garatzen du.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 37.1 c) artikuluan Euskal Enplegu Publikoaren Legearen 98.7 artikuluan inguruan ezarritakoaren haritik, langileen ordezkariekin negoziatu dira oinarriak eta deialdia.

Horren haritik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak —Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarren 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez nire esku utzitako aginpidea betez, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa. Vitoria-Gasteizko Udaleko lanpostu hutsak (I. eranskinean zedarritutakoak) behin betiko hornitzeko lekualdatze-lehiaketaren deialdia onestea.

Bigarrena. Deialdia arautuko duten oinarriak onestea —ebazpen honen eranskinean daude jasota—.

Hirugarrena. II. eranskina onestea, zein Jokabide-elkarrizketa Egituratuari (ECE) buruzkoa baita.

Laugarrena. Ebazpen hau eta deialdiaren oinarriak zein eranskinak ALHAOn argitara daitzezela agintzea.

Bosgarrena. Deialdi honen oinarriak eta dagozkion eranskinak udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak) argitaratzea.

Seigarrena. Eskaera-orriak aurkezteko epea deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera irekiko da, eta 15 egun baliodunen buruan bukatuko.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena ALHAOn argitaratzen denetik hasita, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 16an

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkaria

JON ARMENTIA FRUCTUOSO

Lanpostuak merezimendu-lehiaketa bidez hornitzeko oinarri orokorrak:

Lehen.- Deialdiaren xedea.

1.1.- Hutsik edo behin-behinean beteta egonik karrerako funtzionarioentzat erreserbatuta dauden lanpostuak merezimendu-lehiaketaren sistema baliatuz hornitzea da deialdi honen xedea, horrek aldaketarik eragin gabe eskalan, azpieskalan – kasua bada, motan eta kategorian–, edo titulazio-taldean (eskaintzaren eranskinean ageri dira horiek guztiak).

Bigarrena.- Bete beharreko baldintzak.

Ezarritako baldintza guzti-guztiak bete beharko dituzte lehiakideek deialdia ALHAOn argitaratzen den egunerako, eta esleitutako lanpostuez jabetu arte eutsi horiei, 3.4. oinarrian aurreikusitako salbuespenarekin.

2.1.- Gasteizko Udaleko karrerako funtzionario izatea, zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo Euskal Enplegu Publikoaren Legean aurreikusitako eszedentzia-egoeretan egotea, edo beste administrazio publiko batzuetan zerbitzu-egoeran edo eginkizun-gabetze ez-irraiz, betiere egoera horietarako ezarritako denbora bete bada.

2.2.- Eskaintako lanpostuen zerrendan jasotako betebeharrak betetzea –dagokien lanpostu-katalogoan daude zehaztuta–.

2.3.- Eskatutako lanpostuak eskala, azpieskala eta, hala badagokio, mota eta kategoria berean izendatzea ahalbidetzea.

2.4.- Dena delako lanpostuaren titulazio-talde berekoa izatea. Bi talderi irekita dauden lanpostuetan sartzeak ez du azpitalde-aldaketarik ekarriko.

2.5.- Lanpostuari dagozkion zereginak egitea galaraziko lukeen osasun-arazorik ez izatea.

2.6.- Behin betiko atxikipena duten karrerako funtzionarioek parte hartu ahaliko dute baldin eta atxikipenaren antzintasuna gutxienez bi urtekoa bada deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunerako. Denbora-muga hori ez da aplikatuko baldin eta epea bukatu baino lehen funtzionarioak lanpostuarekiko atxikipena galdu badu gerora sortutako arrazoi ondoz lanpostutik kendu dutelako, hura desagerrarazi delako, edo lanpostua gorde gabeko eszedentzia-egoeran dagoelako. Parte-hartzeari eta balioespenari dagokienez, lan egindako denboratzat zenbatuko dira eszedentzia-egoera hauek: lanpostua gordeta duten eszedentzia-egoerak eta norberaren ardurapeko senideak zaintzeko eszedentzia-egoerak.

2.7.- Eskala/talde ezberdinetan daudenek (aktiboan edo eszedentzian) horietako baten lanpostuetarako lehian bakarrik hartu ahaliko dute parte.

2.8.- Deitutako dotazioetako hizkuntza-eskakizunak betetzea (euskara).

2.9.- Behin-behineko atxikipena duten karrerako funtzionarioak beharturik egongo dira, egoera horretan dauden bitartean, beren eskala eta azpieskala bereko lanpostuen hornikuntzarako deitzen diren lehiaketetan parte hartzera –kolektibo horretan sartuko dira lanpostu-erreserbarik gabe zerbitzu aktibora itzultzen diren langileak, baita ezgaitutako langileak ere, egoera horretatik atera ondoren–. Behin-behineko atxikipenean egonik deialdiak eragiten dien funtzionarioei jakitera emango zaie lehiatzera beharturik daudela. Parte hartzen ez badute, ofiziozko lanpostu bat esleitu zaie, eta behin betikoa izango da.

Hirugarrena.- Eskabideak aurkeztea.

3.1.- Eskabideak aurkezteko epea deialdia ALHAOn iragartzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 15 egun baliodunen buruan bukatuko. Deialdian parte hartu nahi dutenek eskabidea (I. formularioa)

bete beharko dute egoitza elektronikoan. Halaber, II. formularioan eskuratu nahi dituzten lanpostuen kodea adierazi behar dute lehentasun-hurrenkeran. Bi formulario horiek helbide honetan egongo dira eskuragarri: www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak.

3.2.- Eskabideari ez zaio agiririk erantsi behar. Balorazio-batzordeak iturri hauek hartuko ditu kontuan baloratzeko:

1.- Funtzio Publikoaren Sailak kudeatzen dituen dossier pertsonaletan hautagai bakoitzari buruz jasotako dokumentazioa eta informazioa: administrazio-dosierra, IT txartelak, hizkuntza eskakizunak eta prestakuntza-ikastaroak...

2.- Gasteizko Udalak kontsulta ditzakeen erregistro ofizialetan jasotako informazioa.

3.3.- Udal intranetean kontsultatu daiteke Funtzio Publikoaren Sailak dituen agirien zerrenda (Minfoweb – Informazio pertsonala). Gainerakoa Udalaren webgunearen bitartez kontsulta daiteke.

3.4.- Interesdunek dokumentazioa eguneratu nahi badute, jatorrizko agiria eta haren fotokopia aurkeztu beharko dute, erkatzeko. IT txartelak eguneratzeko "gako publikoa" eman behar da. Eguneratzeko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik. Lanpostu baten titularrak lanpostu bererako baina beste destino baterako lehiatzen direlarik —jatorrizko lanpostu-kode bera—, IT txartelaren betebeharra betetzetik salbuetsita egongo dira.

3.5.- Eskabideak lotesleak izango dira eskatzaileentzat, eta ezingo zaie uko egin eskabide-orrian adierazitako lehentasun-hurrenkeraren arabera esleitutako lanpostuei. Uko egin edo atzera egin nahi bada —lehiaketa osoari dagokionez, beti ere— balorazio-batzordeari eskatu beharko zaio, lehiaketaren fase orokorraren behin-behineko emaitzen (puntuazioen) argitalpenari alegazioak aurkezteko epea bukatu baino lehen. Batzordeak aldez aurretik jakinaraziko du noiz bukatzen den epea.

3.6.- Probak egiteko orduan, halakorik bada, denbora eta bitartekoak egokitu egingo zaizkie % 33tik gorako desgaitasuna duten pertsonen. Deialdian parte hartzeko eskabidea aurkeztean eskatu beharko dute hala egin dadila.

3.7.- Egokitzapenak, irakurritakoaren ulermenari eragiten dioten irakurketa- eta idazketa-nahasmenduak direla eta. Egokitzapenak egiteko eskatu beharko dute, eta hauek egingo dira: Arial 12ko koadernotxoak erabiltzea, eta proba osoa edo zati bat ozenki irakurtzeko eskatu ahal izatea. Probaren jarraibideak eta azterketaren eredu-orria —test motakoa bada— aldez aurretik argitaratuko dira.

3.8.- Amatasunagatiko egokitzapenak. Haurdunaldian edo edoskitzaroan daudenek eskatu ahaliko dute.

Laugarrena.- Borondatezko euskara-proba

4.1.- Dagokion egiaztagiria ez dutelarik hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egin nahi dituzten izangaiek —betekizuna nahiz merezimendua izan— eskabidean adierazi beharko dute; izan ere, ez zaie horietan parte hartzeko aukerarik emango eskabideak aurkezteko epean hala adierazten ez dutenei. Eska daitekeen gehieneko maila lortu nahi den plazari dagokiona da.

Bosgarrena.- Onartutako eta baztertutako zerrenda.

5.1.-Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du Funtzio Publikoaren zinegotziak, eta egoitza elektronikoan ("Nire hautaketa-prozesuak") argitaratzeko aginduko, bidenabar adierazten delarik izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dutela akatsak erreklamatu eta zuzentzeko, halakorik gertatu bada.

5.2.- Akatsak zuzentzeko epea amaituta, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta egoitza elektronikoan argitaratzeko aginduko. Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betiko bihurtuko da eskabideen behin-behineko zerrenda, besterik gabe.

Behin betiko zerrendaren kontra errekurso arrunta aurkeztu ahal izango da organo berari zuzenduta, hilabeteko epean, argitaratzen denetik.

Seigarrena.- Balorazio-batzordea

6.1.- Balorazio-batzordeko kideek –titularrak nahiz ordezkioak– karrerako funtzionarioak izan beharko dute, deialdiko lanpostuari dagokion titulazio-azpitaldearen mailakoak edo goragokoak.

6.2.- Funtzio Publikoko zinegotziak izendatuko ditu balorazio-batzordeak, Tokiko Gobernu Batzarrak emandako eskumena dela medio, eta kide hauek osatuko dituzte: lehendakaria, idazkaria eta hiru kide. Lanpostu-hornikuntzako organo teknikoetako kide batek, gutxienez, prestakuntza edo esperientzia izan beharko du enplegu publikoaren arloko hautaketan. Osaera orekatua izango da, hots, sexu bakoitzaren ordezkariak gutxienez % 40koa izan beharko du, hori egoki ez dela behar bezala justifikatu ezean.

6.3.- Balorazio-batzordeko kideen egokitasuna eta kualifikazioa bermatzeko, deialdia egin duen organoa arduratuko da kideek deialdiko lanpostuen eduki funtzionala ezagut dezaten, bai eta hautaketarako nahiz merezimenduak egiaztatzeke erabiliko diren teknikak ezagut ditzaten ere.

6.4.- Aholkulari gisa adituak izendatzeko eskatu ahal izango dute balorazio-batzordeek; hitza izango dute, baina ez botorik.

6.5.- Batzordeek ebatziko dituzte arau hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak oro, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

6.6.- Batzordeko kide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiburuak kalitateko botoa izango du; idazkariak, berriz, prozedura-gaietan baino ez du botoa izango.

6.7.- Balorazio-batzordeetarako izendatutako enberrenda onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera emango da argitara.

6.8.- Balorazio-batzordeak ezingo dira eratu, ezta jardun ere, kideen erdia baino gehiago –titular nahiz ordezkio– bertan ez badira; gainera, ezinbestekoa izango da batzordeburua eta idazkaria bertan izatea.

6.9.- Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantziak egokitzen direlarik, batzordekideek uko egin beharko diote esku hartzeari, eta deialdia egin duen agintariari jakinarazi; orobat, lehiakideek haiek errekusatu ahal izango dituzte.

6.10.- Lehiakideren batek deialdian ezarritako betebeharretakoren bat betetzen ez duela jakiten badu batzordeak hautaketa-prozesuko edozein unetan, hura baztertzeko proposamena egin beharko dio horretarako eskumena duen organoari –aldezt aurretik interesdunari entzunaldia eskaini beharko badio ere–, eta lehiakideak egindako okarren nahiz faltsutasunen berri eman.

6.11.- Hautaketa-prozesuaren edozein unetan ere, prozesuko edozein faseri eragiten dion jatorrizko dokumentazioa eskatu ahal izango du balorazio-batzordeak, baita aurkeztutako merezimenduekin lotutako dokumentazio osagarria ere.

6.12.- Balorazio-batzordeek urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18.era eta 23. zein 24. artikuluetan eta 39/2015 Legearen 3. artikulutik 12.era ezarritakoari jarraituko diote une oro.

6.13.- Epaimahaietan eta epaimahaiekin parte hartzeagatik, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan —zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa— aurreikusitako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izango da.

Zazpigarrena. Lehiaketaren nondik-norakoa.

7.1.- Deialdi honi dagokion lehiaketa ondoz ondoko bi fasetan egingo da: lehen fasea, merezimendu orokorra, batera egingo da deialdiko lanpostu guztietarako; bigarren fasean, lanpostuaren deialdian hala jasotzen bada, berariazko merezimenduak neurtuko dira, eta lehiakideak lanposturako egoki diren hobeto aztertzeko probak egin ahal izango dira.

7.2.1. **Lehen fasea: merezimendu orokorrak.** Gehienez 20 puntu emango dira atal honetan, banaketa honen arabera:

7.2.1.A. **Lortu nahi den lanpostuan (LAKO) egindako lanaren balorazioa.**

Fase honetan 8 puntu lor daitezke, gehienez, Gasteizko udalean lortu nahi diren lanpostu berdinetan jarduteagatik, eta baremo honen arabera:

- a) 0,0031 puntu, lortu nahi den lanpostuan behin betiko atxikipenean (LAKO) emandako egun bakoitzeko; 8 puntu gehienez.
- b) 0,0025 puntu, lortu nahi den lanpostuan (LAKO) zerbitzu-eginkizunetan emandako egun bakoitzeko; 6,38 puntu gehienez.
- c) 0,0020 puntu, lortu nahi den lanpostuaren eskala, azpieskala eta, hala badagokio, mota, kategoria eta talde bereko lanpostuetan behin betiko atxikipenean emandako egun bakoitzeko; 5,11 puntu gehienez.

b) eta c) atalen baturan gehienez ere 6,38 puntu lor daitezke.

Egindako lana atal batean baloratzeak kanpo uzten du denbora hori beste bietan baloratzea, hau da, lan egindako egun bakoitza behin bakarrik baloratu ahal izango da

Adierazitakoak kontuan hartuta, egindako lana baloratuko da, edozein izanik ere lanaldiaren ehuneko.

Lanbide-esperientziaren ondorioetarako, honako hauek ere baloratuko dira: hautagaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran emandako denbora; amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatzen laguntzea xede duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, eta emakume enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora.

Funtzionarizazioen kasuan, funtzionarizatu zen lanpostuan kontratu mugagabea noiz hasi zen, hura hartuko da erreferentzia datatzat, lanpostu horretatik bertatik lehiatuz gero.

Lanpostu-amortizazioen ondorio diren behin-behineko atxikipenak amortizatutako dena delako lanposturako behin betiko atxikipena egin zenetik zenbatuko dira.

Erreserbarik gabe itzuli ondoko behin-behineko atxikipenen kasuan, eszedentzia hasi aurretik behin betiko atxikipenarekin egindako denbora bakarrik balioetsiko da atal honetan.

7.2.1.B. **Antzintasuna.**

Administrazio publikoetan egindako zerbitzutat aitortutako antzintasuna hartuko da kontuan. Gehienez 4 puntu lortu ahal dira, 0,00156 puntu eguneko zenbatuta.

7.2.1.C. **Gradu pertsonal finkatua.**

Gehienez **3 puntu**. Eskuratu nahi den lanpostuarenaren aldean lehiakideak nolako gradu pertsonala duen kontuan izanik:

- 2 mailako aldea, behera: 1 puntu.
- maila bateko aldea, behera: 1,50 puntu
- maila bera: 2,00 puntu
- maila bateko aldea, gora: 2,50 puntu
- 2 maila edo gehiagoko aldea, gora: 3 puntu

7.2.1.D. **Titulu akademikoak**

Baloratu egingo da lehiaketa bidez eskuratu nahi den lanpostuan sartzeko beharrezkoak diren tituluez gain bestelako titulu akademiko ofizialak izatea, deitutako lanpostuaren berezko eskumen esparruarekin

duen lotura kontuan hartuta. Gehienez ere 2 puntu izango dira, betiere balorazio-batzordearen iritziz deitutako lanpostuarekin lotura badute. Hauxe izango da baremoa:

- Doktore-titulua: 1,50 puntu
- Lizentziatura, ingeniartza, arkitektura edo gradua gehi master baliokidea: 1,25 puntu
- Ingeniaritza tekniko, unibertsitateko diploma, arkitektura tekniko edo gradu baliokidea: 1 puntu.
- Masterrak, diplomak eta unibertsitateetako berezko beste titulu batzuk, 300 ordu edo gehiagokoak: 0,75 puntu
- Masterrak, diplomak eta unibertsitateetako berezko beste titulu batzuk, 200 ordu edo gehiagokoak: 0,50 puntu
- Batxilerra, bigarren mailako lanbide-heziketa edo baliokidea: 0,50 puntu
- Lehen mailako lanbide-heziketa edo baliokidea: 0,25 puntu

Titulazio hauek ez dira baloratuko: lanposturako behar den titulazioa lortzeko beharrezkoak diren maila baxuagoko titulazioak, ezta merezimendu gisa baloratu direnak, ezta eskuratu nahi den lanpostuaren titulazio-azpitaldetik beherako maila akademikoa dutenak.

Titulazio-azpitalde desberdinetara irekitako lanpostuetan, azpitalde desberdinetako funtzionarioek parte hartzen badute eta goragoko azpitaldekoei titulazio jakin bat eskatu bazitzairen karrerako funtzionario gisa sartzeko, titulazio hori ez zaio inori baloratuko.

Tituluak atzerrian lortu badira edo beste herrialde batzuetako irakaskuntza-erakundeek eman badituzte, dagokion homologazioa ere aurkeztu beharko da.

7.2.1.E. Prestakuntza ikastaroak.

Deialdiaren xede den lanposturako egokiak diren prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak. Gehienez 2 puntu. Atal honetan bi alderdi baloratuko dira: batetik, batzordearen ustez eskuratu nahi den lanpostuarekin zerikusi zuzena duen prestakuntza; bestetik, irakasle edo hizlari gisa egindako zabalkunde- eta prestakuntza-jarduerak. Atal honetatik kanpo geratzen dira titulazio akademikokoak.

Administrazio publikoek, administrazio publikoko eskolek (IVAP, INAP, IEAP edo administrazio publikoko beste eskola batzuk) eta zentro ofizialek antolatutako prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak baloratuko dira, betiere bertaratze- edo irakaskuntza-ziurtagiria zentro ofizialek eman badute.

Horretarako, hauek hartuko dira zentro ofizialtzat: unibertsitateak, Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza sailen menpeko zentroak, eta elkargo ofizialak.

Ez dira baloratuko akademia pribatuak emandako ikastaroak, ezta fakultate edo eskolako ikasketa plan ofizialekoak gaiei edo master edo graduondoko moduluak dagozkienak ere.

Informatikako ikastaroak izango dira salbuespen. Arlo honetako guztiak baloratuko dira, zentro publiko zein pribatuak emanak izan.

Iraupena (orduak)	Ikasle gisa	Irakasle gisa (behin bakarrik)	Irakasle gisa (behin baina gehiagotan)
1-10	0,10	0,20	0,30
11-20	0,20	0,40	0,50
21-50	0,40	0,80	0,90
51-100	0,55	1,10	1,20
101-200	0,65	1,30	1,40
>200	0,75	1,50	1,60

Horretarako, dena delako ziurtagiriaz gain, alderdi hauek egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da: ordu-kopurua –ECTS unibertsitate-kredituengatik 25 ordu zenbatuko dira; beste kreditu

batzuenatik, 10 ordu-, programa, irakasleak, asistentzia, ikastaroaren helburuak, hartzaile-mota eta abar.

Ez dira aintzat hartuko 2015eko urtarilaren 1a baino lehenagoko ikastaroak, argitalpenak, hitzaldiak, etab.

Halaber, hauek ez dira aintzat hartuko: ikastaro errepikatueta joatea, oinarrizko segurtasun-ikastaroak, kudeaketa-informatikako ikastaroak edo udalaren aplikazio informatikoetako prestakuntza, hizkuntza-ikastaroak, atalak berak antolatutako eta emandako prestakuntza/entrenamendua, eta balorazio-batzordeak eskuratu nahi den lanposturako oinarritzotzat jotzen dituenak.

7.2.1.F. **Hizkuntzak.**

A taldeko lanpostu guztietarako, betekizuna ez den kasuetan, hizkuntza ofizialak jakitea baloratuko da. Europako esparrua hartuko da erreferentziazat, eta gehienez ere **1 puntu** emango dira:

- B1: 0,20 puntu
- B2: 0,35 puntu
- C1: 0,65 puntu
- C2: 1,00 puntu

7.2.2. Bigarren fasea: **Berariazko merezimenduak.** 4 motatakoak izan ahalko dira, eta hornikuntza-lanpostuen zerrendaren eranskinean hala adierazten den lanpostuei aplikatuko zaizkie.

Fase honetako proba edo probetan, gehienez ere, 15 puntu atera ahal izango dira, eta, gutxienez, 6 puntu atera beharko dira. Fasea gainditzeko, proba bakoitzean gehienez lor daitezkeen puntuen % 40 lortu beharko da.

Baloratu beharreko proben artean jokabide-elkarrizketa egituratua dagoenean, gehienez 6 puntuko balioa izango du. Puntuazioa gutxieneko horretatik beherakoa bada, lehiakidea lanpostu horretarako ezgaitzat joko da.

Deialdi honen ondorioetarako, udal intranetean argitaratutako lanpostuen katalogoan agertzen den zereginen deskribapena baliatuko da.

Lanpostu jakin baterako hautagai bakarra badago, edo eskaintzen diren lanpostu beste hautagai, eta lehendik lanpostu horretan zerbitzu-eginkizunetan arituak badira –gutxienez hiru hilabetez, deialdia argitaratu aurretik, eta kontrako txostenik ez badago–, balorazio-batzordeak fase hau ez egiteko aukera izango du, interesdunak hala eskatzen duelarik nahiz aurkezten diren uko egiteak eta berariazko merezimenduen fasera aurkeztu nahi ez dutenen komunikazioak ikusirik. Gehienez 7,5 puntu atera ahal izango dira aldi honetan.

A) Ezagutzak egiaztatzeko probak. Erantzukizuneko eginkizunak betetzeari lotutako ezagutzak behar dituzten lanpostuetarako, nahiz eta sartzeko titulazio espezifikorik ez eskatu, edo titulazio espezifiko bat edo batzuk eskatzen den. Deitutako lanposturako ezagutza esanguratsua ebaluatzeko proba idatzi nahiz praktikoak izango dira.

Lanpostu beraren —LAKO bera— titularra den edo izan den langileari lor daitezkeen gehieneko puntuazioa emango zaio proba honetan.

B) Trebetasun operatiboak izatea eskatzen duten lanpostuak. Hautagaiek trebetasun horiek dituztela erakusteko ariketak eta simulazioak. Deitutako lanpostuan jarduteko esanguratsua diren trebetasunak ebaluatzeko proba praktikoak izango dira.

Lanpostu beraren —LAKO bera eta espezialitate nagusi bera duenaren— titularra den edo izan den langileari lor daitezkeen gehieneko puntuazioa emango zaio proba honetan.

Lanbide nagusi bat eta gutxienez bigarren mailako bi eskatzen diren lanbideetako langileen azpieskalako lanpostuetarako (mantentze ofizialak) honela jokatuko da:

- Espezialitate nagusi bereko "mantentze-lanetako ofizial" lanpostuaren titular diren edo izan direnak. Espezialitate horretarako hautatuak izan direla egiaztatu behar dute.

- Beste espezialitate nagusi bateko "mantentze-lanetako ofizial" lanpostuaren titular diren edo izan direnak. Espezialitate honetarako gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute. Egiaztatzeko moduak:

- Dagokion txartel profesionala (C1 gidatzeko, instalatzailearena espezialitatean),
- 2. mailako edo goragoko profesionaltasun-ziurtagiria,
- Espezialitate horretako prestakuntza profesionala edo 500 orduko edo hortik gorako lanerako prestakuntza.
- Hautaketa-organoak horretarako ezartzen duen proba praktikoa gainditzea.

- "Mantentze-lanetako ofizial" lanpostuaren titular izan ez direnak. Espezialitate horretako espezializazioa egiaztatu beharko dute (ikus aurreko paragrafoa), bai eta beste bi espezialitate osagarri ere, gidatzearen eta/edo eraikuntzaren esparrukoak. Egiaztatzeko moduak:

- Dagokion txartel profesionala (C1 gidatzeko, instalatzailearena espezialitatean)
- 1. mailako edo goragoko profesionaltasun-ziurtagiria,
- Espezialitate horretako prestakuntza profesionala edo 250 ordutik gorako lanerako prestakuntza.
- Hautaketa-organoak horretarako ezartzen duen proba praktikoa gainditzea.

C) Hobekuntza-proiektuak egitea eta horietan parte hartzea, bai eta dagozkien lanpostuetan betetzen diren zerbitzuak eta prozedurak modernizatzea, berritzea edo optimizatzea helburu duten memoriak aurkeztea ere. Zerbitzu edo atalen zuzendaritza duten lanpostu berezitueterako. Balorazio-batzordeak horretarako ezarritako epean eta moduan aurkeztu beharko dira proiektuak. Dokumentuak 12 orrialde izango ditu gehienez, azala eta aurkibidea kontatu gabe (halakorik bada). Arial letra-mota eta 10 tamainakoa. Gutxienez, zerbitzu edo atalaren egungo egoeraren analisisa, antolakuntza-proposamen bat eta hobekuntza-proposamen arrazoituak jaso beharko ditu. Batzordeak aurkezpeneren eta ahozko defentsaren testuinguruan baloratuko du memoria.

D) Gaitasun-probak eta trebetasun kognitiboen arloko probak. Jokabide-elkarriketa egituratuen bidez hautagaien gaitasun profesionalak ebaluatuko dira. Beste pertsona batzuen lanaren gaineko zuzendaritza edo erantzukizuna eskatzen duten lanpostuetarako (lanpostuen katalogoan zuzendari-funtzio duen taldean edo bitarteko buru funtzioa duen taldean dauden lanpostuak). Lehiakidea lanpostuaren eskumen-profilera egokitzen den aztertzer bideratuko da elkarriketa. Bete nahi den lanpostuaren funtzio-taldeko konpetentzia bat edo batzuk baloratuko dira proban.

Elkarriketa horretarako balorazio-batzorde bat eratuko da, eta hiru kidek osatuko dute. Kide horiek elkarriketa egiteko homologazioa izan beharko dute. Emandako puntuazioa organo teknikoari helaraziko zaio, eta organo horrek guztizko puntuazioari gehitu dio. Onartutakoen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da balorazio-batzordearen osaera.

Zuzendari-funtzioak dituen lanpostu baten titular direnei elkarriketa gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa emango zaie, betiere aurretik elkarriketaren bat egin eta gainditu badute (proba honen puntuazioaren % 40).

7.2.3. Euskara jakitearen balioespena.

Baremo hau hartuko da kontuan euskara merezimendu gisa baloratzeko, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritakoaren arabera:

1. HE duten lanpostuak: B1: lor daitekeen gehieneko puntuazioaren ehuneko 5
2. HE duten lanpostuak: B2: lor daitekeen gehieneko puntuazioaren ehuneko 8

3. hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak: C1: lor daitekeen gehieneko puntuazioaren ehuneko 11
 4. HE duten lanpostuak: C2: lor daitekeen gehieneko puntuazioaren ehuneko 14

Lanpostua ren HE	Egiaztatutako HE	Gehieneko puntuazioaren gaineko %	Merezimendu espezifikoak dituzten lanpostuetako puntuak (35 puntu)	Merezimendu espezifikorik gabeko lanpostuetako puntuak (20 puntu)
1	1	5	1,75 puntu	1 puntu.
1	2	8	2,8 puntu	1,6 puntu
2	1	5	1,75 puntu	1 puntu
2	2	8	2,8 puntu	1 puntu.
2	3	11	3,85 puntu	2,2 puntu
3	1	5	1,75 puntu	1 puntu
3	2	8	2,8 puntu	1,6 puntu
3	3	11	3,85 puntu	2,2 puntu
3	4	14	4,9 puntu	2,8 puntu

Zortzigarrena.- Emaizak argitaratzea

8.1.- Alegatutako meritua ezarritakoari jarraiki baloratu ondoren, merezimendu orokorreki dagozkien kalifikazioen zerrenda argitaratuko du balorazio-batzordeak, eta 10 egun baliouduneko epea emango du, argitaratzen denetik, dosierra eskuratzeko eta alegazioak aurkezteko.

8.2.- Berdin jakutuko da berariazko merezimenduen faseko emaitzekin.

Bederatzigarrena.- Lanpostuak esleitzea.

9.1.- Erreklamazioak ebatzi ondoren, lortutako puntuazioen behin betiko zerrenda argitaratuko du batzordeak, lanpostu bakoitzeko.

9.2.- Guztira lortutako puntuak adieraziko dute lanpostuak esleitzeko hurrenkera, aurreko atalean aipatutako zerrenda eta lehiakideek eskaerarekin batera adierazitako lehentasunak aintzat harturik (II. formularioa).

9.3.- Lehen betetzen zuten lanpostua –behin betiko atxikita zeuden lanpostua– desagertzearen ondorioz beste bati behin-behinean atxikita dauden funtzionarioen lehentasun-eskubideari dagokionez, amortizatu den lanpostuaren destino-osagarri bera edo baxuagoa duten lanpostuetan gauzatuko da; lanpostu jakin baterako funtzionario bat baino gehiago egoera berean izanez gero, merezimendu-lehiaketan lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira. Argitalpenetako oharren atalean adieraziko da zein dauden egoera horretan.

9.4.- Lehiaketaren puntuazio osoan berdinketarik gertatuz gero, irizpide hauek baliatuko dira ebazteko:

- Emakume izateari emango zaio lehentasuna emakumeak % 40 baino gutxiago diren lanpostuetan, salbu eta beste hautagaien batengan neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duen bestelako arrazoirik egokitzen bada –sexu-bereizkeriarik gabe–, hala nola enplegu-promoziorako zailtasun bereziak dituen beste kolektiboren batekoa izatea.
- Merezimendu orokorretan lortutako puntuaziorik handiena hartuko da kontuan, gehieneko puntuazioaren mugarekin.
- Oinarrietan ezarritako baremazio-hurrenkerari jarraituko zaio, baina gehieneko puntuazioaren mugarik gabe.
- Administrazioko antzinasunetik handiena –Gasteizko Udalak onartua–.
- Balorazio-batzordeak zehazten dituen beste batzuk.

9.5.- Prozesu hori burutu ondoren, eta alde zuzenetik betebeharrak betetzen dituela egiaztatuta, deialdia egin duen organoari helaraziko dio bere erabakia balorazio-batzordeak, lanpostu-esleipenen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena eman eta argitaratzeko agindu dezan.

Hamargarrena.- Izendapena eta lanpostuaz jabetzea

10.1.- Izendapenean lanpostu berrian hasteko ezartzen den egunaren bezpera izango da atxikitako lanpostua uzteko eguna. Salbuespen gisa epe hori luzatu ahal izango da, behar bezala arrazoituriko zirkunstantziak egokitzen direlarik. Zerbitzu arrazoiak direla eta jatorrizko lanpostua uztea atzeratzen bazaio inori, behin betiko utzi arteko denbora lanpostu berrian emandako denboratzat zenbatuko zaio.

10.2.- Izendapen-ebazpenean zehazten dena izango da lanpostu berrian hasteko eta lanpostuaz jabetzeko eguna. Ebazpenak zerbitzu aktibora itzultzea badakar berekin, lanpostuaz jabetzea izendapenaren egunaren biharamunetik 3 egun balioduneko epean egin beharko da.

10.3.- Lanpostuaz jabetzea atzeratu egingo da funtzionarioa baimen, lizentzia, opor edo bestelako egoeraren batean dagoenean eta, zerbitzu aktiboan egonik, zerbitzua emateko eragozpena dagoenean, hura amaitzen den egunera arte. Salbuespen gisa –arrazoi justifikatuak direla medio, eta behar bezala arrazoitzen direlarik–, egoera horiek bertan behera uztea erabaki ahal izango du organo eskudunak.

10.4.- Desgaitasunen bat duten funtzionarioek lanpostua egokitzeko eskatu ahal izango dute eskabidean bertan, eta egokitzapen hori zentzuzkoa izan beharko da erakundearen testuinguruan. Balorazio-batzordeak interesdunarekin hitz egin eta beharrezkotzat jotzen duen informazioa eskatu ahal izango dio adierazitako egokitzapenaren inguruan, eta, halaber, organo tekniko eskudunen irizpena eskatu, egokitzapena bidezko den eta lanpostu jakin horretako zeregin eta betekizunei erantzutearekin bateragarri den jakiteko.

10.5.- Lanpostu-erreserba berekin dakarten egoeretatik abiatuta lehiaketa honetan parte hartu eta destinoa lortzen duten langileek egoera administratibo berean jarraitzen dutela ulertuko da, salbu eta berariaz eskatzen badute itzultzea, bost egun balioduneko epean, esleipenaren proposamena argitaratzen denetik.

10.6.- Karrerako funtzionarioak sartzeak eragindako dotazioak zehazteko, kontuan hartuko dira soilik lanpostu hutsak behin betiko hornitzeko lekualdatze-lehiaketaren deialdirako oinarri izan diren dotazioak; I. eranskinean daude jasota dotazio horiek. Dotazio multzo batean (hornikuntza-kode bera) lanpostuaz jabetu behar diren karrerako funtzionarioen kopurua hutsik dauden lekuen kopurua baino txikiagoa bada, indarrean dagoen protokoloari jarraiki amaituko da. Ondorio horietarako, ez dira okupatu daitezkeen dotaziotzat hartuko dagoeneko enplegu publikoaren eskaintzetan konprometituta daudenak.

Hamaikagarrena.- Hornikuntza eta zerbitzu-eginkizunak.

11.1.- Funtzio Publikoaren Sailak emaitza horiek baliatu egin ahal izango ditu buruen edo bitarteko buruen lanpostu hutsak zerbitzu-eginkizunen prozeduraren bitartez betetzeko. Kasu horretan, izaera subsidiarioa izango dute emaitzak.

Hamabigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak babestearen alorreko politika.

12.1.- Oinarri hauek, baita horiek gauzatzearen ondorio diren administrazio-egintzak ere, langileak hautatzeko eta aldi baterako kontratazioetarako zerrendak kudeatzeko prozesuetan datuak babesteko udal-protokoloari lotuta daude.

12.2.- Protokolo hori nahitaez ezagutu beharra dago hautaketa-prozesuan parte hartzeko, eta prozesuan parte-hartze hutsak hura onartzen dela esan nahiko du. Edozein unetan eskura daiteke protokolo hori, bai eskabidea egiteko unean –hautaketa-prozesuan onartua izateko formularioan–, bai hautaketa-prozesuaren edozein unetan, prozesu bakoitzari dagokion web-orrian nahiz hautaketa-prozesuaren webguneko “Araudia” atalean.

12.3.- Lanpostu-hornikuntzako deialdi hau borondatezko prozesu lehiakorra da, eta gardentasuna eskatzen du. Hori dela eta, beharrezkoa da parte-hartzaileen identitateak eta lortutako emaitzak

argitaratzea. Udala saiatuko da pertsonak identifikatzeko datuak eta hautaketa-prozesuan lortutako emaitzak sarbide mugatuko eremu batean erakusten, eta behar den denboran soilik.

12.4. Era berean, administrazio-prozesu bat da, eta bertan parte hartzen dutenek datuetan sartzeko eskubidea dute. Eskubide hori gauzatzeak esan nahi du prozesuan aurkeztutako dokumentazio pertsonala (azterketak, ziurtagiriak, merezimenduak...) beste izangai batzuentzat eskuragarri egon daitekeela, horretarako ezarritako udal prozeduretan ezarritakoaren arabera.

12.5.- Izena emateko inprimakia aurkezte hutsarekin, parte-hartzaileak argi adierazten du prozesuaren gardentasun-baldintzak eta datu pertsonalen babesaren murriztapena onartzen dituela.

Hamahirugarrena.- Aplikatzekoa den araudia

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriei buruzkoa.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasun Eragingarriak.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena.
- Osagarri gisa, 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko administrazio orokorrean sartzeko eta lanpostuak hornitu eta lanbide sustapenerako erregelamendu orokorra onartzen duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, zeinaren bitartez 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen baita.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.
- Oinarri orokor eta espezifikoa hauek.

Hamalagarrena.- Aurkaratzeak

Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean adierazitako moduan eta kasuetan jo ahal izango dute interesdunek oinarri hauen kontra, deialdiaren beraren kontra nahiz horren edo balorazio-batzordearen jardueraren ondorio diren egintzen kontra, Funtzio Publikoko zinegotzi ordezkariari zuzenduta.

- Eranskinak eta informazio osagarria: www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak.

- Deialdiaren jarraipena: www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak "Nire hautaketa-prozesuak" (Egoitza Elektronikoa)

**I. ERANSKINA – GASTEIZKO UDALEAN LANPOSTUAK BEHIN BETIKO HORNITZEKO
LEKUALDATZE-LEHIAKETAN ESKAINIKO DIREN LANPOSTUEN ZERRENDA ETA
PROBAK**



Avuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

SARREREN DESKRIBAPENA.

Provisión 2025eko Hornikuntza
Lanpostuen eta unitateen zerrenda - Listado de puestos y unidades

DESCRIPCIÓN ENCABEZAMIENTOS

- C_PRV: Hornidura-kodea, aukera identifikatzen du. II. inprimakian sartzeko kodea da.
- EH-PD: Euskara maila (EH). Derrigortasuna: (Marka = Bai)
- Eskala-taldeak: lanpostura iristeko erabil daitezkeen eskalak/taldeak:
- 0000 (Administrazio Orokorra edo Berezia, edozein azpieskala, mota edo kategoría)
- 1300 (Administrazio Orokorra, Azpieskala Laguntzailea) - 1400 (Administrazio Orokorra Azpieskala Mendekoa)
- 2100 (Administrazio Berezia, Azpieskala Teknikoa, edozein motatakoa)
- 2200 (Administrazio Berezia, Zerbitzu Berezien Azpieskala: Motak; Lanbide eta Zeregin Berezietako langileak, edozein kategoría)
- Merarizako nerezimenduen fasea
- * ME_1. Markaketa = Gaitasunen ebaluazioa (JAE) barne hartzen du
- * ME_2. Markaketa = Ezagutza-proba barne
- * ME_3. Markaketa = Proiektuaren aurkezpena eta defentsa barne
- * ME_4. Markaketa = Trebetasun operatiboen proba barne
- * Oharrak: Berezitasun nagusia.
- CV: Balarazio Batzordea
- *** Lanpostuen katalogoa kontsultatu lanpostuari buruzko informazio gehiago izateko (funtzioak, gaitasunak, titulazioak, beste betekizun batzuk ...)
- *** Consulte el catálogo de puestos para ampliar la información sobre el puesto (funciones, competencias, titulaciones, otros requisitos...)
- C_PRV : Código de provisión, identifica la opción. Es el código para incluir en el formulario II.
- PL-FP: Nivel de euskera (PL). FP: preceptividad.(Marcado = Si)
- Escala: esdala/s desde las que se puede accederse al puesto:
- 0000 (Administración General o Especial, cualquier subescala, clase o categoría)
- 1300 (Administración General. Subescala Auxiliar) - 1400 (Administración General Subescala Subalterna)
- 2100 (Administración Especial, Subescala Técnica, cualquier clase)
- 2200 (Administración Especial, Subescala Servicios Especiales: Clases: Personal de Oficios y Cometidos especiales, cualquier categoría)
- Fase de méritos específicos.
- * ME_1. Marcado = Incluye evaluación competencias (ECE)
- * ME_2. Marcado = Incluye prueba de conocimiento
- * ME_3. Marcado = Incluye presentación y defensa de proyecto
- * ME_4. Marcado = Incluye prueba de destrezas operativas
- * Observaciones: Especificidad principal.
- CV : Comisión de Valoración

